

# ZUBERERAREN BILAKAERAZ OHAR BATZUK

Txomin PEILLEN

Euskaltzaindia

Université de Pau et des Pays de l'Adour

## SUMMARY

This lecture deals with Basque dialect spoken in Soule, France, which, as often happens in the case of peripheral dialects (Soule is the most easterly province of the Basque Country) presents, at the same time, innovation phenomena and signs of archaism. This paper studies the development since the 18th Century of some characteristics of the dialect which is spoken in Soule: losses of lexemes, which only exist now in onomastics, the permanence of a highly-developed verbal system, and phonetic developments. The lecture concludes with an appeal for more respect for the dialectal reality of the Soule of today.

## RESUMEN

Esta comunicación se centra en el dialecto vasco de Zuberoa, provincia más oriental del País Vasco, que presenta a la vez fenómenos de innovación y signos de arcaísmo, como suele ser el caso de los dialectos periféricos. Aquí se estudia la evolución, desde el siglo XVIII, de algunos rasgos del dialecto de Zuberoa: pérdidas de lexemas recogidos por la onomástica, permanencia de un sistema verbal muy desarrollado, evoluciones fonéticas. Concluye la comunicación con el llamamiento a un mayor respeto para el actual dialecto de Zuberoa.

Garai batean zuberera asko eta ongi ikertua izan da eta eskerrak Gavel, Lafon, Larrasquet eta Lhande-ri, zerbait badakigu. Halere askori, euskalari ta euskaltzaleei, ahaztu egiten zaie zuberera ere euskara dela, bereziki euskararen “arauak” finkatzen dituztenen artean erakasteko. Nere gain zuberotar ahai-deak, euskaldunak ditudanez geroz, euskalki hori aski ontsa ikasi dut eta horretaz hamabost artikulua eta bost liburu argitaratuak zeinetan euskalki horren idatzia eta ahozkoa aztertzen baintuen. Gaitasun hori, ez zait Frantzia asko baliatu erakasteko, eta Hegoaldean berdin beste nonbait egiten dituzten dialektologia ihardunaldietara ez bainaute deitu, zorionez Euskaltzaindian leku bat daukat.

Zubereraren egoera bazter-hizkera guztiena da, alde batetik zahartasuna, bestetik berritasuna. Herri hau Euskal Herriko txikiena izanikan ere, behartuena ere, hamazazpigarren mendean idazki asko eman ditu gure hizkuntzan -XVIII. mendeko antzerti gehiena zubereraz baita- eta bestalde idazle herrikoia eta eskolatu parrasta eman duelako.

Ez nator deskribapen orokor baten egitera, baina erraz ahaztu egiten diren ezaugarriak gogoratzen eta adibideekin sendotzen. Metodologia aldetik lekukoak ahal bezain zehatzenik ematen saiatuko naiz, lekuizenak, jendeize-nak izango ditut erdi-arorako baita XVI. mendeko puskez kanpo ere, idazkiak XVII. mendetik goiti.

Hukituko ditudan gaiak gaurko hiztunen adibideekin lagunduko ditut, gehienbat fonetika, fonologia, morfologia, azentoaren eragina. Bitartean beharko zait probekin azpimarratuz topiko ta aurre-iritzi batzuekin gataskatu. Galdera asko egingo ditut, hipotesiak ere, orojakitun ta arau ziurdun horietatik ez naizelako, holako edo halako euskalkiren garbitasunean ta birjintasunean sinesten dutenatarik, horrek ez baitu linguistikarekin ezer ikusteko, nahiz bizkaitarrek ta zuberotarrek dakiten “sineskeria” horien berri.

Gogoratu nahi nizueke ta horrek ez dit dialektologia lana erraztu, nola zuberotar zaharren artean “euskara” batu baten egitekoa azaldu den, halaxe Oihenarte XVII. mendean ezin dudalarik erabili nere berbaldirako, ez eta beti Egiategi, gutxiago Tartas. Tartas honek bere zubererari lapurdiera ta benafarrera nahasi zuen, Egiategi-k Larramendiren hiztegia erabili, Oihenarte-k ez zuen -atsotitzez kanpo- eta olerki bat izan ezik zubereraz idatzi, Artxu-k ere XIX. mendean benafarrera ta zuberera nahasiz “koine” bat sortu nahi izan zuen gisa, eskolarako.

Egia da euskarak gutiengo hizkuntzaren pairamenak dituela baina euskalki nagusi batzuek euskara barruan beste euskalkiei “txipiei” pairamen berdina jasanerazten dizkiete, herri txipi horietako jendei beren euskalkiarenganako estimua edo idatzizko erabilera galeraziz; halere “euskara” hutsez idatzi duten idazleak izan ditugu eta garai honetan zortzi baditugu. Zubereraren

berezitasunek, egia esan, auzoez begi gaiztoz ikusarazten dituzte, baina kon-dairak, geografiak zuberotarrak hartaratu dituzte.

### Lekuizenetan gorde diren hitz zaharkituak

Hitz horiek aintzinago ta batago zela euskara erakusten digute, halakoak ditugu: *Aran, Arpiña, Athe, Atheka, Atx, Barren, Baso, Berro, Korta Gallure, Holtz, Ibi, Ikhei, Lats, Odi, Phiña, Zagita*, ia inork ulertzen ez dituenak (beste aldizkari batean emango ditugu lekukotasunak, artikulua eta liburu honetan tokirik ezaz).

Izen txipietan ere berdin, gaur “bestaldeko” ematen den hainbat itxura zahar irakur ditzakegu zuberotar idazkietan XIII. mendetik XVIII. eraino; han-dik goiti frantsesezkoa idaztea bortxatua baita, halakoak ditugu: *Antso Arlande, Blasko, Domingo, Eneko (sic), Fortanesco, Garciato, Gillen, Oisoa, Oxanda, Peillen, Peiri* (ahoz erabiltzen dena dokumentuetan debekatua orai-narte), *Petirico, Santz, Santxo*.

Halaber, hemen ezin argitara ditzakegun Zuberoako herri guztiek, Nafarroan, Gipuzkoan edo Araban izenkidea daukate, herri, mendi edo etxe itxurapean. Nahiz izen horiek zubereraren bilakaera erakusteko balio duten, zerrenda luzeegia lizateke, hona batzuk: *Ahetze, Algorri, Aloze, Altabe, Altza garai, Añarbe, Andoze, Aranburu, Aspilda, Basabürü, Doneztebe, Garindaine, Hegillor, Larraine, Iruri, Lakarri, Izarbe, Ligi, Liginaga, Mendibil, Mendikota, Muskildi, Ozagaine, Ozaze, Pagola, Santa-Grazi, Sarra, Xarrikota, Sorueta, Undüraine, Urdaitx, Zibiri, Zihiga (Ziga)* eta abar.

Agian, herri horiek X-XII. mendeetan jarri zirelako eta Zuberoa Alfontso borrokariak eta nafar errege batzuk birrantolatua izan baitzen, Mauleko gazte-lua eraiki zutenean, orduan, zubererak ez zuen naparrerarekin arte haundirik izango, izen horiek lekuko.

### Galdutako hitzen hondarrak hitzelkartuetan

Hapaxetatik kanpo egunero zuberotarrek erabiltzen dituzten hitzetan erro zahar ulergaitzak daude.

a. *Atz*. Nahiz eskuko eta oinetako “digi” delakoei “erhi” esan hitzelkar-tuetan, ondoko gutti ditu: *erheraki, erhaztün, ergoihen, erpürü, erpünta*, jen-deez mintzo denean, baina “atz” ez badakite zer den, *hatz egin, hazkatü, lauhazka, hatzeman, atzazkal, azüzkülü* (atzoskol), *aztapar eta hatzozki* hitze-tan erro zaharra agertzen zaigu.

b. *Aurkitu*. Aditz horrentzat zuberotarrek “ediren” diote baina *aurkho* (zuzenezko), *oihalaren aurkhia, aurkhixe* (laister arte) erabiltzen dituzte, eta naski zerbait eskupean denean “*aurkhinian*” da.

b. *Aldatu*. Zuberotarrek *khanbiatü* diote eta arropentzat *althatü*.

c. *Aldapa*. “Aldapa” ez da ulertzen baina *Altabe/Althabe* leku eta jende izena da.

d. *Altxon*. Oihenartek zion “artzain” zela; gelditzen dena da *Altzubide* eta beharbada Santa-Grazin *Altsaso* auzotegia.

e. *Bedar*. Ez da “bedar” esaten “belhar” baizik, baina hitzelkartu askotan ‘bedar’ da: *bedaro*, *bedats*, *bedaka*, *bedazi*, *bedoki*, *bedajo*, *bedophil*.

Ez luzatzearren hona hitz zaharkitu andana: *gara*, *geriza*, *ixe*, *ixitiü/aixitiü* (atzerazi), *izter*, *musu*, *ohol*.

### Atzizki zaharkituak, deklinabideak

Destinatiboan bi atzizki daude: *-ra*, eta absolutiboan *-ala*, *-alat*, esanahiaren aldetik bereizten direnak: *kanporat* (non nahi)/*kanpoala* (hemen kanpora), *lanera* (nora nahi)/*laniala* (lan bereizi batera). Soziatiboan *-ki* forma zaharra da nagusi eta elatiboan *-ti* zaharra (ikus bizkaiera).

Atzizkietan txipigarriak ditugu zaharkituak eta orain ez emankorrek *-ailla*, *-illa* (*lephaila*, *hegilla*, *nabaila* toponimian izen arruntak direnak); *-una*, txipigarria: *neskatxuna*, *alabuna* (zazpi urteez pekoa). Ez luzatzearren lekuizenetan aurkitzen diren *iz/ize*, *oz/oze* eta *-ain* ez dira gehiago emankorrek nahiz baditugun: *Barkoiz*, *Garikoiz*, *Bildoze*; *Aloze*, *Andoze*, *Garindain*, *Undürain*.

Atzizki edo erro emankorrek dira, ordea, zubereraz “*ots*” eta “*as*”. Lehena noski “hotsak” adierazteko: *kantalots*, *atabalots*, *tronpetots*, *üzkerrots* (puzkarots); bigarrena “bilusik” XVI. mendea: *asik*, eta geroztik zerbait jantzi kendurik: *atorrasik*, *bürhasik* (Lapurdin ere), *bilhasik* eta bitxiagoak *saiasik* (enborra agirian), *galtza zolatasik* (galtzerdiekin ibiltzaileaz), *oinzolatasik* (orthüts eta onthüts ere esaten dena).

Lokailuen artean zubererak baditu bereak: *bait/baiko* (bezain laister): *ikhusi baiko* “ikusi orduko”, *ezi* (zeren), *bai otsez* (alegia), *-n ber* (nizan ber: naizen ezkerro).

### Aditzaren berezitasun zaharrak

Hamazortzigarren menderaino bizi-bizirik zirauten aditz trinkoek, eta geroztik pixkanaka galdu dira *egon*, *eraman*, *erabil*, *ibili* eta *edun*-en itxura trinkoak. Galdu diren aditz moduak: bokatiboa izan da “ai + supositiboaz” egiten zena: *aineza*, *aihü* eta abar. Galzoretan da ia Eskiulan eta Santa-Grazin baizik erabiltzen ez zen geroaldi intentsiboko *-renko* forma.

Zaharkeria gehienak ordea gorde ditu, aintzinako idazleetan aurkitzen ziren geroaldi trinkoko *date(ke)*, *nizate(ke)* eta *düket*, *düke*, bakarrik “izan” aditz denean erabiltzen direnak baina ez laguntzaile dagoenean. Halaber, xedezko geroaldia oso hedatua da zubereraz, soilik: *gei dü*, *geietan nüzü* eta aditz bati loturik *egingei diat*, *sartügei diat*. Alokutiboaren sistema oso hedatua dago zubereraz eta osoena agian euskalkien artean, baina pertsonagabeko itxuren entzuteko galderak itxo egin behar. *Nur da?* eta erantzuna beti alokutiboan: *Maidar dün/dük/düzü*. Egia da euskalki gehienetan zukako formak eta

datibozkoak ezin direla bereizi -ez eta euskara batuan ere- zubereraren irtenbi-dea ez da, naski, batere kontutan hartu, ezen

*deizü* (du zuri: dizu (e. b.)); *dizü* (du “zuka”: du? (e. b.)).

Gero “izan” eta “eduki/ukan”-en formak ez nahasteko ere berdin:

*nindizün* (ninduen zuka); *nündüzün* (nintzen zuka).

Ekialdeko euskalkien moduan “-ezan-”en ahalezkoarekin batean “-iron”-enak erabiltzen ditu: *dirot/dezaket*.

Komunztaduretan ordea bizkaieraren moduan “e” darabil datiboan: *deiat* (Z), *deiat* (B); *deitzat* (Z), *deusat* (B) eta pluralean “-tz”, “-zt”, “zk”ren ordezt: *deutsot* (B), *deitzot* (Z) “dizkiot” (erdialdeko euskaratan).

### Zubererazko hiztegia eta maileguak

Euskalki guztien moduan euskalki honek gaztelaniari, okzitanierari, latinari mailegatu du, eta orainarte ez du hainbeste hitz frantsesetik hartu zuzenean. Beste ikerlan batzuetan aipatu dudana laburtuz hona ohar batzuk (ik. bibliografia):

1. Maileguak, gizonen emigraketa lekuekin lotuak direla, ezen duela ehun urte arteraino, ez baitu Zuberoak lekuan berean diglosiarik ezagutu.

2. Mailegu asko gaitzespeneko konotazioekin erabiltzen direla (okzitanierazkoak) edo gehiegikeriak adierazteko (gaztelaniazkoak).

3. Idatzizko mailegu gutxi dago, eta lege hiztegian gaztelaniazkoak gaskoinak bezainbeste.

4. Maileguak, gehien bat eskulangintzan (teknologia ta tresneria izenetan ematen da, hitzen erdiak baino gehiago erdaratik hartuak direlarik).

5. Psikologia, filosofia hiztegian -XVIII. mendean moda bat izan den arren- gaitzespeneko hitzak dira nagusi, eta erlijiozko sailean ia batere ez dago okzitanierazkorik, baina maileguak hor, zubereraz, gaztelaniatik dira.

6. Gaztelaniazko maileguak nahikoa zaharrak izanki, hizkuntzan aski ongi sustraituak dira, baina okzitanierazko multzo ugartik asko gure egunetan galdu dira arrazoin askoren gatik:

- okzitaniera auzo herrietan ez baita asko entzuten.
- zubereraren hiztegi orokorra nahikoa murriztu delako.
- frantses hitzak okzitanierazkoak bazterrarazi baititu.
- hitz bati lotutako teknologia galdu baita.

7. Frantsesa nekezago sustraitzen da zubereraz fonetika urruntasunaren gatik: askotan hitzak “code-switching” moduan erabiltzen dira baina euskalduntzen ahal direnean, gaskoinari aplikatzen zitzaizkion arauak, frantsesari egiten zaizkio, Martin Haase aleman euskaldun ikerlariak erakutsi bezala.

## Fonetikaren aldaketak eta grafiak

Grafia zaharrek gutxi edo ainitz okzitaniera edo gaztelanieraren grafiak jarraitzen dituzte, halere, grafia gorabeherak eta oraingo zaharkeria batzuek erakusten digute zuberaren barne bilakaeraz edo kanpo-eraginez euskalki horren fonetika aldatu dela.

Bazterretan gairi eta XIV. mendetik XVIII. mendeen zehar ibiliz guregaino jauzi batzuk eman ditu zubererak, baina aldaketa horien artean aurretik aipatu eraginez kanpo, euskara guztian fenomeno orokorrak izatea gerta ditake.

## Bokalen sistema

Koldo Mitxelenak azpimarratu zuen moduan, fonetika sistema baten mutur batean katea aldatzen bada, kate osoan aldaketak gertatuko dira, eta zubereraren bokal berriak, /y/ delakoak, frantsesezko “u” eta hizkuntza horretako /oe/ artean ahoskatzen denak du higidura haundiena abiatuko. Henri Gavel-ek argitu zituen arauak jarraituz, “u” noiz gordetzen den eta noiz “ü” bilakatzen badakigu eta ez luzatzearen ez ditugu emango. Begiztatu ditugun eskuidazkietan, ordea, XIV. mendean bokal hori agertzen zaigu. Zubererak eta amikuzerak Gaskoniako okzitanierari fonema hau hartu diote; azken horrek, ordea, probentzalarari noiz hartu dion ez dakigu, zuzenik.

Gai honi nere ekarpentxoak hau lizateke -aspaldian idatzi dut nere tesian baina ez da argitaratu- nere ustez euskaraz aurretikan, “u” sendoak eta “u” argalak, ahulak, baziren. “Sendoek” euskara gehienez eta zubereraz ere hitzetan jatorrizko “u” soinua gorde dute; halaxe: *ikusí, itsúsí, (h)úr, húra* (erakuslea) eta holako; bestetik “argalek” “ahulek” nahiz /y/ soinua, nahiz /i/-arena hartu: *huri/híri, untze/iltze, mutil/müthil* (Z. lehen), *míthil* (Z. orain), *hume/hüme* edo *híme* (Z), *zuek/zíek* edo *zík* (Z).

Adibide horietan baliteke bat edo beste asimilaketa joku batean sartzea nola, *híri* ta *míthil* itxuraketekin (urrunago ikusiko dugu fenomeno hori), baina honekin Gavelek zubereraz esan zuena beste euskalkietara hedatzea nahi nuke ezen gure batzordean, Etxebarria, Gaminde, Pagola, Aurrekotxea eta Videgain-ek egin bilketetan euskalkien birdeskribapen batera goaz, ahoz-kotik hurbilago izango dena.

Bigarren ohar gisa gainera nezake, XVIII. mendean frantses grafian baitirra zubererazko eskuidazki asko, ez dagoela okzitanierak sortzen dizkigun dudarik gehiago, ezen erromantze mota horretan “u”, “o” idazten baitzuten beren erdi-aroko grafian, eta gure XVIII. mendeko idazleek “houts” idazten dute alegia *huts* ez “huts” alegia *hüts*, erran nahi baita orduan ez zela oraindik aldaketa eman osorik. Gaur ere holako bikunak eta hirukunak baditugu bilakaeraren lekuko, bat aipatzekotan, urean egosi arropari, Pettarrean *bokhata* erraiten zaio. Ibarreskuinean, Basaburuan *bukhata* eta Ibarrezkerrean *bükhata*, ez da eman *\*bikhata*, ordea.

Hor ere beharbada “o sendoak” eta “o ahulak” bagenituzke hala nola beti “o”rekin diren hitzetan: *óro, ól(h)o, óllo, ótso, óso, órro, ó(r)ano* (bi o-dunak) baina *edo, atzo* ere bai; gero “o” ahulak *hon/hún, non/nún, gizon/gízun, nore/nure* (Z. zaharrean), *ohore/uhure* bikunetan. Agian, “o”tik “u”ra eta “u”tik “i”ra igarotze horretan badago katea lotura bat, zubereraz beste euskalkietan baino nabarmenago dena.

Bestalde mugatzaileen kontaktoa, eta beharbada, euskara guztian gertatzen da “oa”, “ua” bilakatzen da, *otsua, osua, orrua, ollua* entzuten delako. Halatan ere zubereraz idatzitako testuetan *o/u* okzitanieraren grafiari zor dugula uste bada, beti oso bizirik dago *-bokhata* adibideaz kanpo- *gizon* forma zaharra Pettarrean Maule inguruan (Sorhueta, Bildoze, Espeize eta abarretan), beste guztiak *gizun* diotelarik; halaber Patri Urkizu-k egin astolasterren bilduman XVIII. mendeko testu herrikoietan, *non, noiz, nor, gizon*, irakur diteke eta XVII.ean beti: agian, XVIII. mendean hasi da, ezen Barkoxen *Etxehon/Etxahún* aurkitzen delako eta gaur *Ezponda* dena, XVIII. menderaino *Ezponda* baitzen (Santa-Grazin oraindik *ezponda* diote, izen arruntaz ari direnean eta badago *Ezpondabú(r)ü* etxea deritzaiona).

Frantses grafiak laguntzenago gaituelarik ikus dezagun Belako zaldunaren garaian zertan zegoen banaketa:

“O” rekin: *hontu, hontarzun, eroan, moldia, guizonerhailea, norat, ohoincatu, ohoregabetu, ohorestatu, ontza, soñecoa, zobaítaldis (sic), zoin*.

“U” rekin: *hounki, houstu, houtza, houtzeguin, moustu, mouschtu, nihoulazere, nouiz, nourbait, nournahi*.

Beraz taula batean biltzeko hona idatziak ematen diguna:

XVII. mendean	XVIII. mendean	XIX. mendean
eroan	eroan	irun/iruan
gizonerhaile	gizonerhaile	gizunehaile
hontarzün	hontarzün	huntarzün
hontü	hontü	huntü
hustü	hustü	hüstü
hutsa	hutsa	hütsa
hutsegin	hutsegin	hütsegin
mahatsarinoa	mahatsarinoa/ardua	ardüa
molde	molde	molde/mulde
moxtü	moxtü	muxtü
noiz	nuiz	nuiz
nor	nur	nur
ohore	õhöre/ühüre	ühüre
ontsa	ontsa	untsa
soñeko	soñeko	suñeko/soñeko
zoñ (zein)	zoñ/zuñ	zuñ

Hitz guztiek batean aldaketa araua ez aplikatzeak arrazoin asko izan dezake: hitz bat bestea baino erabiliagoa izatea, baita konotazio bereiziz azpimarratu nahia, halako kasu batzuk badira Ligiko euskarari, zakur batek sakonki ozkatzen zaituenean *usúki* esaten zaio ozkari, ausigiari, baina azalezkoa bada *úsúki*; gero beste arrazoinak ondotik: afrikatuak ala ez, likidoak ala ez, sudurkari kontsonanteak ala ez, hori nasaiki azaldu zuen Gavel-ek.

Bokal sudurkariak zubereraren ezaugarri nagusi bat dira “ü” ospetsuarekin batean, baina, nahiz zuberotarrek ondo gordetzen dituzten eta ozenki ahoskatzen Pettarrean, ez dute fonologia balorerik. Batzuk galdutako silaba kontsonante sudurkaridun baten lekuko dira *ardu/\*ardano*, *gazna/\*gaztana*, (caseinata?). Beste euskalkietan “n”, “nh” bokalarlean dagoenean ditu zubereak bere sudurkariak, lehena bigarrena baino ozenkiago, sendokiago emana; honelakoak ditugu hitz horiek:

*inarrosi/iharrosi,*  
*aate, ahate/ahate*

baina berdin “n” aurretik baldin badago gerta ditekete zubereraz *nihur eta ihur*; *ihulaz eta nihulaz* entzuten direlako; beraz bokal sudurkariak “n” ta “h”ri lotuak dira.

Alfontso Irigoyen-ek aspaldian *De Re filologica* delakoan eta azkenik *Fontes Linguae Vasconum*-en gaia hukitu du, bere artikulua izenburua delarik “Etimología del nombre vasco del vascuence y las vocales nasales vascas descritas por Garibay” (*FLV* 56, Iruñea, 1990). Beste artikulutan bizkaierazko bokal sudurkariak aipatu baldin bazituen bizkaitar ikerlariak Garibay-ek gure hizkuntzaren izenez idazten duenaz iharduten du, XVI. mendean dio gure mintzaira *Enuskera* dela; “e” horren ondotik doana ez ote da Bela-k egiten zuen bezala sudurkari baten, bokal sudurkari baten transkribapena? Erantzuna Santa-Grazin aurkitu dut, aspaldixkan ezen nere auzoek *hüskára* deitzen baitute, *hüskáldün* herritarrak “ü” sudurkari batekin eta “a” apur bat sudurretik ere. Honek berriz erakusten digu bokal sudurkariak “n” (*enuskera*) ta “h” (*heuskara*) delakoeekin duten lotura (gure hizkuntzaren izenean agertzen den “h” hori oraindik Ligiko zaharrek darabilte eta Santa-Graziko euskaldun guztiek, bestalde Beñat Etxeparekoaren lekukotasuna badugu XVI. mendean).

Zuberotar euskal idazleak aintzinadanik bokal sudurkariak entzun eta idatzi zituzten: halaxe batzutan J. Egiategi-ren lumapean 1.780.ean esku idazkietan tildea, gaur sudurkari den bokal baten gainean, agertzen da; halaber garai berean Joana Felipe Belako zaldun mauletarrak bokal sudurkaria adierazten digu, bokal horren atzetik “n” bat idatziz eta hori bere eskuidazki batean *Histoire des Basques* XVIII. mendean idatzitakoan irakur liteke, argitara gabe liburu horretan zuberotar hiztegi bat ematen baitu, *Fontes Linguae Vasconum* delakoan argitaratu genuena. Bi idazle horiez kanpo zuberotarrak ez dira



gehiegi arduratu sudur soinu horien idazten, baina hitzegiten dutenean, azpimarratzen dute, nola behar diren orain ere sudur soinuaz erran.

Zelan bereizi bokal sudurkari direnak eta ez direnak? Ikusi dugu horiek “n” ta “h” bokal artekoekin dituzten loturak, baina belarri ona ez dutenei esango nieke aski dutela zuberotar batek hitzegiten duenean sudurrari begiratzeari, ezen delako sudurkaria ahoskatzen duenean sudur hegalak estutzen, trinkatzen dituelako. Gavel-ek ere erakutsi zuen nola bi sudurkari daudenean hitz berdinean bigarrena beti ahultxeago dela.

Mitxelenak ta Gavelek gai hau aski erabili dutelako, gaineratuko nuke nola Alfontso Irigoyen-ek ahoz eta idatziz (ik. bibliografia) bigabostetan gomutarazi digun bizkaiera zaharrean holako sudurkariak ere bazirela. Geuk ez dugu uste okzitanieratik hartuak ditugun ez portugesezik, lehen hizkuntzan gutxi dira: “a” sudurkaria agertzen da “an” lekuan, adibidez ogia esateko gaskoinez: /pã/. Oroitarazi nahi nituzke fonema horien agerpen batzuk hiztegian galdutako “n”en ikusten lagunt baitezakete:

ãhãte (Z)	lat anade (m)	aate (G)
õhõre, ùhùre (Z)	lat. honore (m)	oore (G)
ĩhãrausi (Z)	inharrosi (L)	inarrosi (G)
ẽsẽiu (Z)	entseiu (L, N)	saio (G)
mĩhĩ (Z)	mihi (L, N)	min, mingain (B, G)
ardũ (Z)	arno (L, N)	ardau (B) ardano

Bizkaieraz ordea diptongoak dira sudurkari: *ao*, *ae*, *ai*, *ei*, Erronkarin bezala (han guttiago).

### **-iz hispaniar atzikiaren erabilera zubereraz**

Lekuizenetan *-iz*, *-ize* atzikia herri izenen artean agertzen da: *Barkóize*, *Beroríze*, *Erbíze*, *Espéize*, *Oníze* noizpait erromatar ondoko batek etxe bati eman izena *-iz* batekin herrikotua. Aragoian eta Erriberan aurki genitzake erantzunak: *Oníze* ez ote da *Fonis*, *Funis*, *Funes*, *Froniz*-en ahaidea, euskarak “f”ari dion aiherrarekin, *Barkoiz*, *Barkóize* (*Barcoisbide* izenean eta gaskoin zaharreko *Barcuiz*-ean arkitzen dena) *Marko* baten etxean izango zen eta *m/b* aldaketa beste leku batean erakutsiko dugu zubereraren joera dela. erdal mailuetan, auzo euskalkien alderantziz.

Itxura berdinak ez du esan nahi izen guztiek kondaira ta etorki berdina daukatela, eta zerrenda horretatik, agian, atera behar genituzke *-itze* ta *-atze* batzuk, esate baterako *Garikóix* ezen erdi-aroan 1.377.etik goiti *Garikotxéa*, *Garaikotxéa* agertzen delako. Aldiz Atharratzeko etxeetan XVII-XVIII. mendean agertzen den *Enekoiz* (Enecois) etxea argi dago. Etxe berriagoak dira naski *-iz*-en ordez *-ene* erabiltzen dutenak eta Zuberoako zentsuan bi baizik ez dira agertzen eta Ligiko *Blaskoenéa* XVIII. mendekoa da.

### Asimilaketa

Zubereraz -eta Euskal Herriaren beste muturrean bizkaieraz- joera hau daukate, baina ez zaigu beti erraz jakitea zer ote den lehenbiziko forma. Nork esango dizu zein den zaharrena: *untze* ala *iltze*, *huri* ala *hiri*? Aldiz badirudi zubererazko *gültzürrün* eta bizkaierazko *guntzurrun* asimilaketa kasuak direla; gero kondairaren lekukotasunak izan genitzake ezen erdi-aroan zubereraz bizpahirur itxurapean topatzen baitugu hitz berdina:

*Ithurriague* (Bilozeko etxea),  
*Itturrialdea* (Arstue),  
*Itchurie* eta  
*Iturralte* (Montori-Beroritze)

Adibide horiek bi forma ematen dizkigute 'Ithurri' eta txipigarriz 'Itturri', 'Itxurri'. Gaur, ordea, ez da entzuten hitz hori itxura horretan zubereraz *üthürri* edo *üthürri* baizik eta hain zuzen XIV. mendeko eskuidazki horietan, beharbada XVII. mendeko kopiatzaileak aldatua, Zuhare herrian 'Uthurria' eta 'Uthurriague' etxe izenak ematen dira. Asimilaketa osoa gertatzen da hitz honetan, gaur *üthürri* entzuten baita gehienbat.

Aldaketa hori, eskierki, hiru silabatako hitzetan edireiten dugu hala nola: *üngürü*, *ürgüllü*, *ützüli*, *ürrüxa* eta gure tesian erakutsi genuen bezala hitzen luzetasunaren arabera, ia esponenzial baten gisa haunditzen da aldaketaren maiztasuna.

Halatan ere bi silabatako hitzetan ere asimilaketa gerta diteke, eta beharbada aspaldianagotik bilakatua hala nola *huri/hiri* delakoak erakusten diguna eta berrikiago zubereroeraz agituak

*müthil/mithil*  
*müthiri/mithiri*

### Diptongoak zubereraz

Aspaldian erakutsi da badirela zubereraz diptongo zaharrak eta azken mendeetan kontsonanteen erortzearekin agertu direnak euskara mintzatuan; dakizuenez aski ongi górdetzen dira -erdialdeko euskalkien alderantziz- bokal arteko leherkariak, b, d, g, eta denetan bezala p, t, k; baina bokal arteko "r" bakunaren erortzeak -Nafarroan eta Gipuzkoan ere gertatzen denak- Zuberoako euskalkian diptongo berriak agertarazi ditu, hala nola Zuberoako Basaburuan *eosi*, Pettarrean *yosi*, 'erosi' errateko, badirudi gauza berdina gertatzen dela besteetan, esate baterako Iñaki Gamindek Urdiaingo gipuzkeran, Nafarroan *yosi* bildu baitu eta ez Baztanen. Berdin dago 'erori', *eo*i (Basaburuan) eta *io*i (Pettarrean). Holako laburpenak ematen dira gipuzkeraz hala nola Beterrian *baatza* (zubereraz *baatze*). Naski bilakaera ez da horretan egoten eta euskalki askotan behenafarreraz ere, hola sortu triptongoak laburtzen dira, holaxet "manex" hizkeretan *oraino/oino/oono* bilakaera ezagutzen da eta Zuberoako Pettarrean *o(r)ail/oail/oi*. *Euskera*-n argitaratu ikerlantxo

batean nolako arte handia zegoen Zuberoan Basaburutik Pettarrera erakutsi nuen hemen laburtzen dudana:

	BASABÜRÜ	PETTAR
ea/ia	semíak (semeak)	semík
o-ai	o(r)ái (orain)	ói
ia	khanbiátü abiátü	khanbítü abítü
oa/ua	kanpúan (al exterior de) kanpún (afuera, por fuera)	kanpún
e-a	e(r)áitxi (jaitsi) eáiki (eraiki)	íáitxi íáiki

Beharbada Pettarrean azentua ez baita Basaburuan bezain markatua fonetika desberdin baten bidetik doatzi, diptongoren etsaiak bilakatu direlarik, beharbada, “r” bakuna erortzeak ekarri “diptongo berrien” ugaritzearen orekatzeko.

Maulen dagoen frantses kazeta batean, izkinatxo batean euskarak badu bere lekua, hor “fonetikoki” idatzitako zuberera argitaratzen dute, alegia zuberera ezin dela beste gisaz idatzi, zuberotarrek uler lezakete, baina besteentzat buruhaustea da, bera Garindañekoa izanki, eta “hitzak jatenenik” dituzten zuberotarrena. Noizdanik agertu den Pettarrean diptongoen ezabatze hori? Lehenik badirudi -gaurko gipuzkeran bezala (*jún, mendín, kanpún*)- azken silabetan gertatu dela. Pastoraletan eta XVII-XVIII. mendeko eskuidazkietan ez da irakurtzen, behin ikusi dut Egiategiren obra nasaiean *denín* “denian” itxuraren lekuan. Ordukotz XVIII. mendean agian abiatu zen aldaketa ta Etxahunekin XIX. mende erditan Pettarran -bertsolari erraztasunez ote?-argi ta garbi dago eta Etxahunen eskutik idatzirik, ez gaur bildua, Jean Haritschelhar-ek erakutsi zigun bezala, famatu da gainera Etxahunen *Desertüko ihizik* eta ez, orain ere Basabürüan entzuten den *ihiziak*.

### Kontsonanteen bilakaera batzuez

Zubererak hor ere bokalekin bezala baditu berrikeriak eta zaharkeriak. Hitz barneko “rtz” “st” bilakatzea ta bokal arteko “r” bakunaren erorketa dira berrikeriak, zaharkeriak ordea “j”aren ahozkerata hitzen hasierako afrikatuak.

Badira oraindik Iparraldeko euskara erakasten dutenak eta ez dakitenak hitz bat zubereraz afrikatu batekin has daitekeela, auzoko “manex” hizkeren alderantziz; ezen “manexismoa” zuberotarrentzat gehienbat fonetikan baita. Batzuek diote afrikatuak hitzari sendimenduzkoa gaineratzen diola, baina nik dakidalarik zubereraz *txakür* hitz bat badago baina *zakür* ez. Izatekotan bustidurak du egiteko hori euskalki honetan txiki ta pollitak baitira: *txóri, tximíno, txákür*, eta handiago batzuetan itsusiago: *tzóri, tzimíno, tzákür*. Halaber, lapur-

terazko kasu bakarrean bezala, *tzarra*, *txarra* baino gaitzespen handiagokoa da. Gipuzkera ta bizkaieraren ereduz edo zaharkeriaz diogu: *txarramiko*, *txilintxau*, *txipi*, *tximista*, *txista*, *txitxi*, *txüt* eta holako.

Filologo ez direnei eta beren azpieuskalkia eredutzat hartzen dutenei, ezin dela “egiazko euskarari” afrikaturik izan hitz baten hasieran, frikariak baizik bigabostetan entzun diet, eta euskaldunen artean %10-ak hitzen hasieran txistukariak erabiltzen baditu besteek amor eman behar dutela. Holako batek gaineratu zidan gaztelaniatik hartu zituela Hegoaldeko euskarak hasierako afrikatuak eta esan nionean -bera harriturik atxikiz- zubereraz bazirela, harek orduan okzitanieratik hartu zituela zubererak, bere euskalkia birjina geldituz. Zoritxarrez zubereraren inguruko okzitanieran ezin da hitz bat hasi afrikatu batekin: beraz, frantsesak eta bearnesak lapurtar-nafartarren fonetika jarraitzen du.

Ba ote da okzitanieraz hasierako afrikaturik -zubereraz ugari direnak-, bai, baina Zuberoatik urrun eta Gipuzkoatik hurbilago den Chalosse herrian, Lapurdiko mugan; han hitz zerrenda bat dago, espresiboak eta batzuk euskaratik hartuak hain zuzen: *tchapota* “lohian sartu”, *tchebit* (txakur), *tchintcherilho* “xixahori”, *axot* “txo, zozo”, *tchicho* (gazt. “chinchón”, L. “xintxon”), *tchalamina* “txaramela”, hitz gehienak hor daude.

Nere ustez afrikatuak hitzen hasieran bazter euskalkietan aurkitzean zerbait aintzinasun ematen dio fonemari, baina ez dut hizkuntzetan sortze garbiari sinesten eta halaz ere ez dut uste kanpoko eraginez dela afrikatua hitzen hasieran galdu euskaraz.

Euskalkian sistemak bere osotasunean irauten du, *tz/tx* aldikatuz, bustidurak duelarik ez afrikatuak maitagarri konotazioa ematen (*tzáküür*, *txáküür*) (*tzimal/tximal*), baina berdin araua zorrotz da, *záhar*, *zábal*, *zirzil*, *zúri*, *zázpi*, *zamári* delakoek ez lezakeke txipigarrian afrikaturik har, baina beti dira: *xahar*, *xábal*, *xirxil*, *xáxpi*, *xamári*; beraz ezin da Hegoaldean bezala esan *txuri* edo *txoko* zubereraz; urrunago ikusiko ditugu “prothesis” ta “postthesis” delakoen kasuak. Bizkaieraz badakigu hitzen hasieran /dz/ gerta ditekela, zubereraz hitzen erdietan /edzenply/ eta /edzamen/ hitzetan legez.

### “H”ren erabilpena, erorpenean, lekuz aldatzea

a) *Galdua*: Hitz elkartuetan, gaur behintzat, beste “h”dun euskalkietan bezala badirudi ezin dela, gehienetan, bi “h” izan hitz berdinean:

haur + khide: *aurhide*

hil + herri: *ilherri*

hitz + hartu: *hitzartü*

har + hoiñ: *harruiñ*

Beharbada, arau horren aurka doan hitz bakarra *hunhartü* (onartu) litzateke, nahiz bi gisatara ahoskatzen den, *hunhartü/unhartü*. Lehen, atzizkiekin behintzat, ez ziruditen hain zorrotzak, *helthü* irakurtzen baita maiz. Jende ize-

netan ere gauza bitxiak baditugu, orain *hürrün* esana gatik lehenago ‘Urruthi’ zirenak gaur ‘Urruti’ dira inolako “h”rik gabe.

Bestalde auzo euskalkietan hasierako “h”a daukatelarik hitz askotan zubererak ez du -dirudienez- sekulan izan eta beti agertzen dira *aize*, *arma*, *azi*, *ezür* eta holakoak.

Azkenik leherkarien ozentzeak ekarri ditu “h” galtzeak XVIII. gizalditik goiti, lehen *thenpora* zena *denbora* bilakatuz, barne aldaketak edo auzo euskalkiekin edo eliza liburuen eraginaz.

b) *Lekuz aldatzea*

XVIII. mendean	XX. mendean
<i>ürhün</i>	<i>hürrün</i>
<i>hürrentü</i>	<i>ürhentü</i>
<i>arhondo</i>	<i>harrondo</i>
<i>paphaka</i>	<i>phanpaka</i>

c) *Hiltzelkartuetan agertzea*: “r + bokal edo kontsonante = h”:

hur + alde: *uhalde*

lür + erabili: *lüherabili*

lür + irin: *lühirin*

ur + gaitz: *ühaitz*

**Bustidurak**

Bustiduren bidez, sabaikarien bidez gure euskalki hau besteen gandik urruntxetan da, ezen batzuetan bustiduradun hitzak oinarritzkoa galerazten baitu:

*hori* (lehen); *holli* (beti orain) kolorea dela ta

*hürren* (lehen); (orain beti) *hüllen*, *hüllan*

*erho* (lehen); (orain gehienetan) *ellho* edo *ertzo*

Batzuetan erdibidean gabiltza, batzuek oraindik bustidura gabe Pettarrean *ülü* erraiten dakite, baina Basabürüan, ia beti *illi* esaten zaio “eulia”ri eta bi formak ere balia daitezke konotazio desberdinekin: “bero” hitz arrunta da eta “bello”, bero goxoaz mintzo denean.

Bestalde Iparraldeko beste euskalki “manex” delakoen alderantziz zubererak sabaikari guztiak gorde ditu, eta ez beti konotazio eta fonologia erabile-raz:

*gañ*, *ezpañ*, *hañ*, *dohañ* (“manexez” gain, ezpain, hain, dohain)

*ollo*, *Pello*, *Allande* (“manexez” oilo, Peyo, Elande)

Bustidura txipigarrien fonologia bereizketa giputz-bizkaitarrek baino hobeki gorde du (Karmele Rotaetxe andereak bere tesian ondo erakutsi legean Ondarruko zaharrek “tt” zerabilten eta gazteek -erdal kutsuz edo- “tx”. Nafarlapurteraz nahikoa ondo gorde bada “t” bustia, “d” bustia ia galdua da eta zubereraz ‘Maddalen’ *Maddi* delarik entzuten “manexek” diote *Mayalen*, eta *Mayi* eta honela idazten.

Zubereraren zaharkeria bat hitzen hasieran, nahiz leherkariekin hala afrikatuekin, hala frikariekin txipigarriak egin ditzakeela: *zilhar*: xilhar, *zortzi*: xortxi, *zerra*: xerra, *zintzarri*: xintxa, *zankho*: xankho, aldaketa fonologikoa delarik, baina hitzaren oinarrizko esan nahia kontutan hartuz txipigarria, onespenezko edo gaitzespeneko izan ditek: *txoria* (pollita) baina *gixon* (itsusi edo txarra); *zühür* (mirespenez “sabio”) *xühür* (gaitzespenez “zeken”); halaber *xaxpi* (zazpi txiki, txar).

### Bokalen arteko “r” eta “rh”ren galtzeak

Erorketa hori ez da hain zaharra zubereraz XVIII. menderaino ez baita kondarrik baina euskara guztian eman dena, zubereraz ia zeharo eman da, beste euskalkidunengandikako ulergaitzasuna ekarriz. “Oro” hitzaz kanpo eta lekuka “ezari” delakoaz at erabat galdu da “r” bakuna bokalen artean zegoena. Azken urteetan hil dira Santa-Grazin zahar batzuk oraindik *ere* eta *aragi* esaten zutenak (orain denek *ee* eta *aagi*). ‘Erori’ hitzarekin berdin *eo*i edo *io*i entzuten baita.

Halaber “rh”, “h” bilakatu egin da hitz batzuetan, *arhan/ahan*, *érhi/éhi* (nahiz Santa-Grazin oraino dioten *árhan* eta *érhi*); lekuizenetan “rh” gorde da jende izenetan ere: *Arhondo*, *Arhets*, *Arhex*; baina jadanik mendiari *Orhi/Oh*i esaten zaio.

Kontsonante bakun horren galtzea emeki egin da, ezen herri kantuek erakusten diguten “r” hori ahoskatu gabe bertso batzuk ezin direla ongi abestu eta hor herriak gordetzen ditu:

Txóri errexiñóla údán da khantári  
zéren ordían béitü kanpóan janhári  
negían ez da agéri, balimá dágo éri  
údá jin balédi kontsóla náinte ni

(XVIII. mendeko abestia)

Eta Etxahun Barkoxekoarekin berdin “*Urxaphal bat badügü herrian tristerik*”.

Hemeretzigarren mendearen bigarren aldian eman da bilakaera, gure izeba zaharra, zaharrenak 1.880an sortuak, oraindik *ere* baitzion batzuetan. Kontsonante horren galtzeak bi gauza sortu ditu, batzuetan bi bokal berdin

bokal luzea ematen duela eta gero bokal bakuna: *arági, aági, ági* azken hau gazteen ahoetan entzuten delarik; gero ikusiko ditugu beste ondorioak.

Sailkapen bat egin diteke hitzen bilakaeraz:

1. Hitz laburrek euskara gehienetan “r” bakunaren galtzea joera dutenak

Orain: *óai, ói* (Z), *úai* (N), *oin* (G, B)

ere : *ee, e* (Z, N, G), *ee/ere* (N, L)

2. Hitz luzeagoak eta hor gipuzkeraz ta zubereraz ematen dira galtzeak:

*e(r)ó(r)i.*

*ba(r)átz* (G), *ba(r)átze* (Z)

3. Zubereraz: hitz guztietan zein nahi luzetasunezkotan “r” bakunaren galtzea gertatzen da.

Beste ondorioak:

a. Sekulan izan ez den “r” bat idatzian jartzea: *joran*, “joan”en ordezt.

b. Antzerkian “r” bakunak idatziak diren ezkerro, “rr” bikunak bezala ahoskatzea:

*orrai* (sic),

*nik erre* (ere)

c. “r” bikuna ongi ahoskatua delarik, batekin idaztea *elhóri* (elhorri) *egári* (egarri), *igóri* (igorri) eta holako.

d. Triptongo berriak sortzea: *orai/oai*

e. Triptongoen desagertzea: *oai/oi* (egun batean \*ui eman dezakeena). “rh”ren kasuan “h” ez badu ematen bustidurak aldatzen du, halaxe XVIII. menderaino (pastoraletan ere) *érho* dago *éllho* dena gaur, eta *értzo* hitza ere badago, agian nahasketarik ez gertatzeko ezen *eho* gaur “matar” da. Bustiduren kasuekin ikusiko dugu zer urruntasun ematen dion batzuetan zuberotar hiztegiari holako zerak.

### Sudurkari + leherkari

“Mb”, “Nb”. Horretaz K. Mitxelena-k *Textos Arcáicos* eta *Fonética Histórica Vasca* delakoetan erakutsi zigun akitaniera zaharrezko “nb, mb”-dun hitzak nola gaur “b” galduta agertzen zaizkigun:

*sembe* (ak.) / *seme* (eusk.)

*umbe, ombe* (ak.) / *lumme, (h)ume* (eusk.)

Hain zuzen aldaketa hau jadanik Erromatar garaian eman zen ezen Nafarroako Lergan aurkitu harri-idazkian *Umme* irakurtzen delako.

Zubereraz “mb/nb” dun hitz guztietara hedatzen ari da euskara mintzatuan eta nik uste beste euskalki askotan ere abiatua dena. Hemezortzigarren gizaldiko diren pastoralak eta herrikoiago diren “astolasterrak” irakurrita beti *zon-bait*, *zunbait*, *zonbat* agertzen zaigu; gaur ordea, nahiz beste gisaz idazten den, *zumat*, *zumait* entzuten da.

Aldaketa hau ez da beti erabatekoa, eta orozbatekoa, ezen zubereraz azentuak agintzen eta manatzen baitu hor eta honelatan gertatzen da, nere ustez:

A' -nb B—————> nb

A -nb B'—————> m (*zumáit*, *zumát-*)

erran nahi baita azentua azkenean denean da “b” galtzen, baina aurretik baldin badu ez, bi silaba denean; gero hiru silabekin

A-nb-B' + C—————> mb, nb: *hainbéste* (hor diptongoak ere eragina baduelarik) *anbúla*. Agian gutxiago erabili hitzetan ez da aldatu.

“Nd” galpen hori ez da zubereraz ematen, “nd” bat “nt” bilaka liteke, baina auzo okzitaniarrek “d” galtzen badu (andar=anar) zubererak ez; zenbait aldaketa denean fonologikoa izan ohi da, hala nola *sendo*: sendatua eta *sentho*: gotor bereizten dira halaxe. Hiztegia ikertuz halere -*nt* eta -*nth* gehiago agertzen da hitzen erditan, eziez ez eta -*nd* (eta auzo euskalkiekin berdinduz):

*saintü* (Z) *saindu* (L)

*gainti* (Z) *gaindi* (N)

baina naski *handi* (*hanti* “hantik” delako), *ondo* (albo) *mendi* eta holako.

“Ng”. Nahiz ez dakigun zein den zaharrena “ng” ez da gaur behintzat agertzen zubereraz askotan non ez den gaitzizen batean edo bestean hala nola *txilingo*. Euskararen aztarna zaharretan ordea ez da sistematikoki “ng”, batzuk -erdialde euskalkietan hala delako egiazko euskara bezala eman nahi digutelarik- dakidanez *Textos Arcaicos Vascos* delakotan VIII-IX. mendeko harri batean baitio Mitxelenak IAUN INCO irakurtzen dela; egia da bestalde, nere jakitean “Jaingo” forma ez dela asko erabili non ez den ingelesez haiek *By Jingo* baitiote. Gainera zubereraz hiru itxurapean ager ditekete -*nko*:

*txilingo* (gutxitan): -ngo

*hanko*: -nko (berdin *inkaiü*, *anka*, *unka* maileguetan)

*zankho*: -nkho (berdin *zinkha*, *zinkhurin* eta holako)

Askotan halere n+ko kasuetan “e” bat tarteka daiteke zubereraz, baina muga herrietan baizik, Santa-Grazi, Beroritze-Montorin, Eskiulan eta Eskiula inguruko auzotegietan:

eman+ko: *emaneko* (eman geroaldian)



**Ozentze-gortze arazoa**

Hizkuntza arauzkutzen den garaian, zer den euskara eta zer ez den benetan euskara diotenak badira, hizkuntza gauza bizia ez balitz bezala; euskara bere osotasunean ikusita bi joera daude; kontserbakorrak ote dira horretan bazter euskara diren bizkaiera ta zuberera? Ezin esan; arrazoinak ez dira beti argi, zubererak bederen hiru azalpen ditu:

l+ t: *sükalte*

l+th: *althe, althare*

l+ d: *aldi*

Beste kontsonante aspiratuen sistema zubereraz eta behe nafarrera Ekialdekoan gorde da bakarrik eta 1979ean *Fontes Linguae Vasconum* delakoan “El castellano y lo español en Zuberoa” argitaratu nuenean erakutsi nuen erromantzeari egin mailegu zaharretan kontsonante aspiratuak genituela: *pharkamentü, phakatü, phino, phiña, phena*, baina ez berriagoetan: *palazio, persona*. Beraz *lh, llh, kh, th, ph* leherkari gorrekin entzuten dira oraindik ere zubereraz, ez dakigu izan direnez *gh, dh, bh* gure ezagutza mugatuan.

Ozentze-gortzeak hitzen hasieran, lapurtera eredutzat harturik mugatu dira, *b, d, g* beste *p, t, k*, baino euskaldunago izanki nonbait hitzen hastean latinezko gorren ozentzea euskal lege egiazko bezala eman da zuberera ta bizkaiera euskara ez balira bezala, baina akitaniera kontutan hartu balitz ikusiko zen baldin hitz hasieran “p”rik ez badago hitzen barrenean bai, “t” ugari daude non nahi (aldiz “d” gutxi ) eta “k” hitzen hasieran nabarmenki agertzen da *kizon* hitzean. Eta denentzat adibide gisa eman genezake zerrenda hau

kizon ———> kizonten ———>kizonpon

Horrek bakarrik darakusa fonetika sistema bat ez dela sekulan bakuna eta iturri batekoa, lapurteraz ere bi aukeren, bi hautuen kondarrak ikusten direlako. Horretarako egin dugu taula hau:

L	Z	B
gomit	khümit	konbidatu
gurutze/kurutze	khürütxe	kurutze
gorputz	khorpitz	korputz
gatea	khatea	katea
giño (gatz.)	kheñü	kiñu

Halere arau eder hau ez da beti betetzen ezen ez ditugu ezagutzen: \*gadi-ra, \*gaiku, \*gasu, \*garga, \*gofesatu, \*golore, \*gontra. Uste izateko da euskalki guztietan garai batean ozentzeak eman direla ta besteetan ez, ezen zubereraz baditugun: *galtza, gano, gatzeliü, gatzigatiü, gathiü, gerezi, gida, gorde, gomendatiü, güitizia* edo gureago diren hitzekin *gaiü, gor, gorri, gizon*.

**“M” sudurkaria eta erdal hitzen disimilaketa**

Zubereraz, FLVen erakutsi nuen bezala, frantsesezko saio batean “b” sudurkaritzea, trufan da gehienbat, “m” erabiltzen, beraz guk *Biarritze* diogularik, guretzat *Miarritze* erdainu bat bezala litzateke, ezen norbaitek: *bai*, *bena badakit*, esaten badu, besteak horretaz parre egiteko *mai*, *mena madakit* esango du; alderantziz zubereraz, batikbat okzitanieratik hartutako hitzetan alderantziz gabiltza eta hona adibide batzuk:

malaste (ok.): *bahést* (Z) trakets  
 masacana (ok.): *basakhána* (Z) zur pareta  
 menuser (ok.): *benüsér* (Z)zurgin  
 medeci (ok.): *bedezí* (Z)sendagile  
 Miranda (ok.): *Bi(r)ánda* (Z)Miranda  
 mocanas (ok.): *bukanás* (Z)sudurzapi  
 moseron (ok.): *buxéru* (Z)zizazuri

Desasimilaketa hau ez da ematen “manex” euskalkietan zerrenda honi begiratzen badiogu:

*bórtü* (Z): mortu (L, N)  
*bítre* (Z): mitre (L, N), berin  
*Biarrítze* (Z): Miarritze (L, N)  
*bíga* (Z): miga (L, N), bigaia  
*bénta* (Z): menta (L, N), benta  
*bekanika* (Z): mekanika, maxina (L, N)

Zubereraren joera hori nahikoa berria izango da ta ironiaren sistemari lotua agian, ezen latin mailegu zaharretan nafar-lapurteraren bideak segitu zituen:

baccina (lat.): *makhúña* (Z)  
 ventura (lat.): *mentúra* (Z)  
 vindicare (lat.): *mendekátü* (Z)

Gaitzespeneko hitzetan naski beti “m” da: *mardáila* (gaizki esana) *mankarróta/bankarrota*; *maidana* (deabrusa), *ments* (falta).

**Azentuaren eragina euskalkiaren bilakaeran**

Jean Larrasquet-ek gerla aurrean saio on bat egin zuen, azentuaren eraginaz kontsonanteen bilakaeran Ipar Ekialdeko zubereraz. Nere ustez eta auzo euskalkietan azentua galdua den ezkerko kontsonante batzuen gordetzea azentuari zor genioke. halaxe nafar-lapurteraz euskara mintzatuan hain nabarmen den, bokal arteko *b*, *d*, *g*-ren erorketa ez da zubereraz ematen azentua gordailu eta gordatzailea izanki; horregatik zuberotar batek “in dut” entzuten duenean

uler lezake *irina daukat* eta “ein dut” *erein dut*, berak beti *egin* baitio bere osotasunean.

Azentuak silaba galdu bat sala lezake, halaxe dakigularik bokal batez bukatzen denean hitza azkenaren aurrean dagoela azentua, bitxi dirudi *hamabí* hitzean azkenean izatea, baldin ez bada oroitzen “hamabiga” izango zela lehen; gero *hamalau* eta *hamaséi*-en kasuetan araua ondo jarraikia da, ezen diptongodun azkenean jausten baita azentua.

Araugabeki dirudi berdin hitz batzuetan azentua azkenean izatea hala nola *begilüz* hitzean, baina hor ere hitz laburtua da, jatorrizko hitzelkartua “begilüze” delako (lüze-rekin egindago hitzelkartu guztiek “e” galtzen badute; badirudi zuberera ez dela bakarria horretan *Lexicón bilbaíno* Arriagarenean *begiluz* agertzen baita).

Jatorrizko azentua gorde lezakete okzitaniarazko maileguez “u” bategaz amaitzen direnak: *arrazú, faizú, fripú, kaltzú, kuillú, pintú, sarzú* eta holako. Bestelan ere *-és* atzizkiarekin eta erdal maileguetan (gaskoinerazkoetan) *biar-nés, bordelés, frantzés/frantsés, tripakés* kanpotar azentua gorde da, halaber mailegu gehienetan: *ostalér, diférent, obediént*. Erran gabe doa, baina ez dut luzatu nahi, hitz bakartuak azentua daukala, baina perpausean gal dezakeela, baita Basabürüian Pettarrean baino nabarmenago dela. Atzizkiak “t”, “r” bukatzen badira edo diptongoz azentua naski, azkenean dago, gure azentua ez delarik europar mintzaira gehienetarik hain bereiz, erran dezakegu halaz ere aldakorra dela ta eratorpenekin eta elkarketekin lekuz aldatzen dela Errokariko fitsuaren, leku finkatuaren alderantziz.

## Protesiak

Nahiz maileguetan, nahiz euskal hitzetan, erdialdeko euskalkietan agertzen den protesia ez da berdin ikusten bizkaieraz eta zubereraz taula txiki honi so egiten badiogu:

Ekialdea (Z)	Erdialdea	Mendebaldea (B)
arrathu	garratoin	arratoin
üñhürri	txinaurri, txingurri	iñurri/txinurri

Baina euskalkian erabat urrunago doaz eta baditu:

*apho*, ez zapo;  
*hüstü*, ez (t)xistu;  
*hürrüpa*, ez zurrupa.

Baina badira protesi ez diren frikari ta afrikatuak zubereraz eta agian euskalki guztietan: *txakur, zarrasta, zimiko, txori/xori*; afrikatu eta frikari horiek batzuetan, beraz zubereraz esan nahi bereizia, konotazioa ekar lezakete eta besteetan jatorrizkoak lirateke.

**“Aferesia”: “e” leku izenen azkenean**

Aspaldion ohartu zarete hegoaldetarrok Ekialdeko eta batzuetan erdialdeko euskalkietan afrikatu ta frikariak hitzen azkenetan gaurko euskaran “e” bat txapelduak direla. Eranspen hori Nafarroa Garaian ematen da ere eta nahiz hitz arruntetan ez den arazorik eta zuberotarrek dioten: *ardatz*, *mahats*, *mehats*, *laratz*, eta *ibar*, leku izenetan ez da berdin: *Atarratzte*, *Ustarroze/Ustartze* (Erronkarin), *Orontze* (Zaraitzun), *Miarritze* eta *Ibarre* aurkitzen baita zubereraz (baita goi ta behe-nafarreraz ere).

Neronek, hastean, uste nuen inesiboaren erabileraz zela; J. Allières-ek lokatibo guztien erabileratik zetorrela edo zetorkeela erran zidan; gauzak ez dira beharbada beti hain garbi, ezen izen arruntez, jende berdinak “ibarra” esaten badu, bi gisatara baitio edo *Andozeko ibarra* edo *Andozibarre*; zein da zaharrena, ordea “ibar” ala “ibarre”? Egia da ez dugula hitz arruntetan \**ardatzte* eta \**laratzte*-ren lekukotasunik eta ezin erantzun.

Gainera, “e” hori “ibar” hitzarekin bezala “gain”-ekin agertzen bada ere, ez da beharrezkoa zeren lekuizenetan, gehienak “gañ” baldin badira, ezagutzen baitugu “Zalhagañe” mendia (1.050m.) eta hurbil dauka ordea “Andiozgaña” (850m.). Berdin bizi garen etxea Santa-Grazin hiru izenez ezagutzen da, katastroan *Ibarra* da, zergentzat *Ibarria* (beraz Ibarre) eta *Ibarbüri* auzontzat; araua beraz ez da zorrotza.

Bai, beste behin ez Urduñako kongresuan eman hitzaldian azaldu nuen bezala bigarren aldikotz, herri baten edo etxe baten benetako izena jakiteko notariengana, udaletxera, auzo herrietara jo behar da -euskalki guztietan eta hizkuntza guztietan legez- erabiltzenenik duenak laburtzen eta itxuragabetzen baitu izena; amaren etxondoa izan zen “Bentaberria”, baina gure arbasoak badakigu gaur *Iaporda* deritzaion lekuan bizitu zirela, eta kontratuak irakurriz ikasi dugu benetako izena “Idiarteborda” dela; berdin urte askotan Ligiko etxe bati *Saikudoi* esaten entzun nuelarik Santa-Grazia bizitzera etorri nintzenezan hangoek benetako izena eman zidaten “Sabukidoi”, ulergarria; alderantziz nik gazte danik banekien ezin ulertuzko santagraztar *Ehüjarrea* zer zen ezen herri auzoan Ligin *Uhatzarre* esaten baitiogu, bai “Uhaitz txarra” da ibar gehienez ez baitu errekek urik, eta daukanean errekesto aldakorra.

Bai, XVIII. mendetik goiti, puntu batzuetan zuberera besteengandik asko urrundu da, baliman beste euskaldun herrieekin zituen harremanak Frantses Iraultza handiaren ondotik murriztu baitziren eta bearnesek beren betiko gutiziaz, Zuberoa Biarnoari lotzea erdietsi baitzuten. Gaur fonetika desberdin horrek eta azentuak (gorde baitugu) zuberera auzo manexei ulergaitz egiten diete, nahiz askotan hiztegian ez den holako lezerik.

**Ahosketa ta idazkera**

Jadanik ikusi dugu nolako dudak ekartzen dituen euskal izen bat frantses edo gaskoin grafiaz irakurtzeak -gaztelaniazkoa delarik zubereratik hurbilena maiz- baina zubereraren ahoskera hain da aldatu beste euskaldunentzat ba-

tzuetan erdal grafia jendeen ahoskera baino garbiago, argiago gerta baititake. Izen zaharren itxuragabetzen ez dira, agian, zuberotarrak besteak baino urrunago joaten, baina gaskoinen *Libarren*, eta frantsesen *Libarrenx*, *Iribarren* zaharretik hurbilago dira gaur entzuten den *Iabarne* baino; nahiz zuberotar seme izan Joanes Casenave Harigilek ez zuen ulertzen etxe baten izena jendeek *Bianda* ziotena, paperetan “Miranda” irakurri arte, berdin komunzki *Irigoren* idazten dena herriak *Iaguen* ahoskatzen du, eta “Irigaray” idatzia dena “frantses grafiaz” *Iagai*. Itxuragabetze horretan ez nuen berehala ulertu “Gat” zer zen, etxe haren izena norbaitek *Gaat*, bi “a”rekin ahoskaturik ulertu nuen *Garat* zela. Gertatzen dena da notariak, eta katastroak eman grafia ez dutela jendeek berek erabiltzen eta telefono listan berek ahoskatzen duten fantasia ematen dutela, halaxe *Elixagarai*, *Elixegai*, edo *Elixigai*, bilakatzen da, erdi fonetikoki idatzia. Paperetan “Harixtegi” den etxeari, denek eta etxeokoei *Axtegi* diote, batzuetan kanpotarrek etxearen izena euskaldunek baino hobeki ematen dutelarik paperetan ikasi baitute.

### Okzitanierazko “scripta”ren eragina

Aurretik ikusi dugu XIV-XVII.eraingo gaskoin “scripta” Zuberoan nagusi zelarik zer ekarri zuen eta zer duda sortu “u”, “o” idazten zelako, baina gaskoinek sortutako beste arazo arinagoak ditugu jende izenei eman dieten itxura batzuetan euskaratik urruntzenegia baita, itxuragabetzeraino.

Okzitanierazko zuberotar dokumentu zaharrak erabili behar direnean edo euskaldun bat Okzitanian bizi baldin bada gertatzen da ez dakitela erdal izkiriartzaleek hitza non hautsi, non moztu *de Etcheverry* bat topatzen dutenean gehienek *Cheverry* deitzen dutela: halaxe Biarnoko ta Zuberoako zentzuan *Cheverce*, *Cheverry*, *Chegaray* irakurtzen da, bestalde bitxiago dena “i” batekin hasten diren deiturek gutienik “i” galtzen dute, batzuetan “i” eta baditugu *Ligaray*, *Ligoyhen* etxe eta jendeak, eta *Rigaray* eta *Rogaray* jendeak. Ez da, izan ere, gaskoinen joera bakarrik eta beste erromantzeekin gertatu da, ezen *Irunberri-k Lumbier* eman baitu eta *d’Etxaberri-k Xabier*. Holako aldaketan aldatzeko lana ez zaio jakintsunari komeni egitea, erdi-aroko etxe izen batzuk argitaratu zirenean egin zen gisan; hortakotz Zuberoako zentsua irakurri ondoren, bi jokabide aurkitu ditut gaurko izenekin berdinkatuz.

Altzain ta Gameren, XIV. mendeko *Miaçabau* etxea gaskoindua eta gaur bi herrietan *Miñazabal*.

Baina erdi-aroko bi *Irichabau*-etatik bat *Irazabal* bilakatu da eta Irabarnekoa *Irixibau*; azken honek okzitanierazko aldaketa onartuz eta urrunago joanaz asimilaketaz hirugarren “i” bat sartuz.

Zuberoako eskuidazkietan “scripta” nahasiak agertzen zaizkigu zentsu berdinean (XIV.ekoa XVII. kopiaua); gaztelaniazko grafia “ch”: *Arteche*, *Barneche*, *Echart*, *Echarte*, *Echeverse*, *Echegoyhen*, *Guaraycochea*,

*Goyheche*; gero okzitanierazko “x”ekin: *Burdelexea*, *Exartea*, *Laxaltea*, *Tornalexe*; azkenik frantses grafiaz “tch”: *Etchartea*, *Etchebarne*, *Etchehon*. Uste dut lehen aldikotz izenak argitaratzean grafiak errespetatu behar direla batzuetan, gorago baztertu diren “Barhen” eta “Barhan” formak guretzat jakingarriak direlako.

Ikusi dugu nola nafar erromantzeak okzitanieraren jokabide berdina izan duen “Irunberri” euskal izenaren transkribapenean, bada beste elkar-hurbiltzerik, gaztelaniak ala euskarak -mendebaldekoak- sortu dituenak ez dakizkigunak. Halaxe Biarnorat bizitzera joaten ziren eta joan ziren euskaldun askoren izenak denborarekin ikusi zituzten eta zubererak egiten ez dituen legean “o” guztiak “u” bilakatzen, holako kasua da *Mendioundou*, grafia frantsesetan Biarnoko jende izena, baina besterik ere badago hala nola Haristoi *Haristouy* (Haristui) bilakatzea eta hor Bizkaia ta Araban holako fenomenoak ematen dira. Koldo Mitxelena *Fonética Histórica Vasca* delakoan 107. orr. gogoratzen digu Bizkaian talde-berekailua ez dela “doi”, baina “-dui” Arratian, Orozkon, bai eta halaxe agertzen zaigula Landucci-ren XVI. mendeko hiztegian Araban ere. Nafarroako leku izenetan berdin -erromantzearen eraginaz ala barne-bilakaeraz ote?- irakurtzen eta entzuten dugu *Hilarduya*, *Aristuia*, *Espelduia* eta holakoak.

“O” “u”tan zerratzea euskalki gehienetan gutxi edo aski ematen dela badakigu, bestalde Lapurdin askok esaten baitute *ungi* ez ongi, Behe-Nafarroan, *untsa* ez ontsa, Gipuzkoan eta Bizkaian tokiaren arabera *nun*, ez non. Beharbada erromantzeak horretan gu baino goizago hasi ziren, baina joera hau Europako beste hizkuntzetan edo behintzat hizketetan entzuten da, baldin ez bada idazten ere.

Leku-izenak, legezkoak omen, ez dira naski euskarazkoak baina askotan, errespetuarekin edo begirune gabe gaskoinek, frantsesek bildu dituzten eran emanak. Gaskointze batzuk, ordea, ez dira euskal izenari buruzagitu eta hauek adibidez:

Auciet Juson (lehen “Altzagarai”, orain *Altzai*)

Auciet Susson (lehen ta orain *Altzabeheti*)

Gaur ez da harrigarri askotan jendeen izenak ulergarriago izatea erdiaroan finkatu zirelako, gaur ikusten diren etxe-izen grafiak baino, okzitanieraren eragina gorabehera.

### Okzitanierarekin harremanak

Euskaltzaindiko Dialektologia batzordearen egitekoen artean, gai horretaz ehun eta berrogei bat orrialdetako lana badaukat egina, frantsesetz erromantek ere balia dezaten eta Martin Haase aleman ikerlariak gai horretaz bere tesia Köhln-en 1.991.eko martxoan irakurria du. Azken honek oroitarazi digu

nola amikuzerak frantses hitzak hartzen zituenean, okzitanierari eman tratutik igarorazten zituen, eta adibide gisa ematen zuen, frantsesez *enregistrement* zena, *men* —> *mendu* legearekin eta protesiarekin *erregistramendu* bilakatu zela; zubereraz berdin gertatzen da, frantsesezko “régiment”, hola *errejimentü* eta “canton” *kantonamentü* bilakatu direlako (azken kasu honetan ere bi hitz nahasi dira “canton” ta “cantonnement”). Badirudi, nere ustez latin hitz zaharrekin, mailegu zaharragoekin ere hori agitu dela ezen *pharkamentü* eta *pentsamentü*, baitirudite edo latinetik edo agian aragoieratik edo erromantzetik hartuak.

### Ondorioz

Orokorki “eüskarak” zaharkeria batzuk erakusten dizkigu: kontsonante aspiratu eta “h” ugari, “j” ahoskera /z/, gero bokal sudurkariak eta berrikeriak -beste euskalki batzuetan ematen direnak- diptongoen galtzea (*jun, mendin, kanpun* eta holako), bokal arteko “r” bakunen erorketa osoa, ü-ren erabilera, hitz hasieretan protesi batzuen eza eta okzitanieratik hamar bat hitzetan sartu kontsonante bitxiak.

Hiztegiaren aldetik latina, gero erromantzeak, gero okzitaniera, gero frantsesa sartu zaizkigu, beste mailegurik badagoelarik, eta hemendik goiti, agian, ingelesa; ikusi dugu, ahal duenean, zubererak nola euskalduntzen dituen maileguak.

Lapurteraz eta nafarreraz XVII. menderaino ezagutzen zen geroaldi zaharra gorde du “-izan” ta “ukan” aditzekin bakarrik- baina ez laguntzaile direlarik, ez eta beste aditzekin. Zubererak bere aterabide on batzuk aurkitu ditu alokutiboen eta datiboen ez nahasteko. Hika-ko formetan (Iruñerriko euskara denetan bezala) lehenaldian azkeneko “n” ez da sartu eta “izan”ekin (*nündia, zia, güntia*) ditugu eta “ukan”ekin (*nia, zia, ginia*, eta holako). Naski zaharra go eta beste euskalkietatik hurbilago dager zuberera, ta XVIII. mendiaz geroztik eman bilakaera lasterrak baztertu du, ulergaitz eginaz beste euskaldunei. Azentuak hitzaren muga markatzen duelarik grafian “a” absolutua bezala, bat hitzari lotzen zuten eta perpausean hitzak zeukan azentua kontutan harturik, berdin laguntzailea aditzari lotzen, batzuk uste zuten latin hizkuntzen eredu, baina adibideak argi darakusa barne egituraz dela gertatzen:

*irakürtzen* esaten baita eta *irakurtzendiát*

Laburtzeko, nahiz gaztelaniarekin eta horretaz saio bat egin genuen “El castellano y lo español en Zuberoa” FLVen, nahiz okzitanierarekin maileguak erraz egiten dira, frantsesarekin ordea, lehenagoko arauak ezin badira jarri hitza “code-switching” moduan airean geratzen da eta hizkuntzan ez sustraitzen; horrela erran genezake XVIII. mendeko pastoraletan agertzen diren frantses hitz asko galdu direla, gaskoinezko parrasta bat ere aldi berean.

Gainera okzitanierak gutxienik “ü” eman dio zubererari eta bere frikari bi-txiak /kaSy/ eta Z /gaZna/, /εZne/. Hiztegiaren aldetik ez du zubererak auzo euskalkiek baino gehiago mailegatu, baina auzo dialekto desberdin batean, Lapurdin gaskoinera izan da iturria eta Zuberoan, menditarren bearnes okzitanieratik holako mailegu ugari idoro genezake euskalki guztietan, baina desberdinak, bizi moldeen arabera. Zubereraz egin ditudan ikerketen ta sundaketen arabera, 5.000 hitzetatik gutxi gorabehera 900 okzitanieratik eta 600 gaztelaniatik hartuak lirateke, gero beste asko latinetik, aragoieratik, frantsetik eta nik dakita nondik.

Gogoratu dizuet nere ikerlanetan esan nuen gisa zer semantika alorretan sartu ziren okzitanierazko maileguak: gehienbat teknologian, gero psikologian (bereiziki XVIII. mendean eta geroztik galduak); mailegu gehienek euskal sinonimoa daukatela, eta batzuetan gaitzespeneko konotazio daukana okzitanieratikakoa dela. Erlizioan ez da okzitaniera hitzik sartu bai ordea gaztelaniazko asko, azken hizkuntza horrek bere eragina izan du ere lege eta administralgoako hiztegian eta bitxi dena artzantza eta ihize hiztegian, ez hainbeste lurlanean.

Bi lan gutxienik gelditzen dira egiteko: alde batetik ulertzea zergatik inon Romanian erabiltzen diren hitz batzuk, egiaz, latinetik etortzen diren? eta aragoierarekin zer harreman izan duen zubererak. Biak, hiru direlarik ere diren okzitaniera itxura daukaten 90 bat hitz inongo hiztegitan agertzen ez direnak hizkuntza hartan.

Iraultzatik landan galdu diren egiturak, pastoralen eskuidazkiak berdinkatuz ikusten da, ezen errate baterako Santa Helenaren XVIII. mendeko eskuidazkietan (130., 13.30. zbkiz emanetan) agertzen diren asko 1.804.eko kopian ezabatuak dira.

- Aditz trinkoak. *Joan, jakin* oraindik bizirik dira, *ibili*-renak ia galduak, *egon*-en forma gehienak XIX.ean eta *eraman, erabili*-renak XVIII. gizaldian.

- Aoristaren galtzea. XVII. mendean ematen da nahiz *den/dadin, dugun/dezagun* txandakak horien ondakinak izan.

- Botiboak (*ailitz, aileza, ainintz*) XIX. mende azkenean nonbait euskara mintzatutik desagertzen dira.

- Jabetasunezko izenlagun indartuak, eta izenordainak (*neu, neure*) XVII. menderako *nure, ore* bilakatuak dira ta XVIII. mendean *ene, hire* nagusitzen, besteak desagertu eta *nihaur, hihaur* enfatikoiez ordarituak.

Nola nahi ere asko galdu dira, gauzekin, egoerekin, bizi moldeekin batean eta berdin okzitanieratik hartutako ainitz badira ere fosilizatu diren hitz asko lekuizenetan agertzen direnak hamarka (denak ez ditugu ikusi), gero baziren lehen beste esan nahirekin erabiltzen zirenak eta gaur direnak *ethorri* (itzuli “bueltatu”), *gerthatü* (topatu). Egin ez dugun lana da, oraingo euskararen azken bilakaerak ikertzea, baina badakigu entzunaz euskara batuaren hitz asko



ari direla zubereraz<sup>1</sup> sartzen (*iragarki, ikastola, abesti, irratî*) baita zubereratik galdu eta berriz itzultzen zaizkieten *zinegotzi* (ahaztua), *aholkatî* (Santa-Grazin bakarrik gordea), *idatzi* (zaharrek “redactar” bezala erabiltzen zutena) eta abar. Badago zer egina oraindik gure gogo sakonean sartua baitago usteke-ria duela berrogei urteetako eta zaharren euskara baizik ez dela ikertu behar, gaurko ikerlariek, gure batzordean, nahiz kanpotik bide berri horiek hartu dituzte.

Bukatu behar dut eta burutzeko galde genezake otoi Iparraldeko kondairalariak, Euskal Herriko izenak ematen dituztenean, kostatzen bazaie ere jatorrizko grafia eman dezaten eta biltzailei, idatzitako formaz gainera, ahoskatua, Dialektologia egiten dugunok balia dezagun. Bigarrenik leku izenez arduratzen direnean eta etimologia ematen hasten arren joan daitezela ikustera hola-ko lekua den, zer geomorfologia duen, zer geobotanika dagoen Toponomia ez baita bulego batean eta liburutegi batean bakarrik egiten baina oinak harrietan, lokatzetan eta aldapetan ibiliz.

Hirugarrenik “linguista otsezkoek” eta hiztegi egileek otoi ez dezatela ipini gakoan artean (*ipar.*) Iparraldeko euskalki bat balitz bezala, askotan zuberera, auzo “manex”etatik urruntzen baita eta Hegoalde otsezko euskalkiez hurbiltzen, gainera goi-nafarrera, behe-nafarrera ta lapurteraren ahaidea da, nahiz ez den Iparraldekoa; zuberera urruntzen dela fonetikaz auzoetaz bai eta hiztegian ere ezen “bortz”, eta “bertze”, hitzen atzetik (*ipar.*) ipintzen bada Zuberoa ez da iparraldean; hori bigabostetan esan eta idatzi dut, baina badirudi arauzkatzeko errabia “jakobino” batean ez dela entzunik izan, nik egin zuzenketak ez baitira hiztegi batean onartuak izan.

Laugarrenik gogora dezagun “Iparralde” otsezko euskalkietan -Hegoaldeko askotan legez- zubereraz azentua gorde dela, beraz hitzegigile-entzat “manex” etiketa (erran nahi baita nafar-lapurtera) argiago da Iparralde baino, gainera geografikoki faltsua da, ezen Zuberoa gehiena Gipuzkoa baino hegoaldeanago baita. Ekialde izena egiazkoago da funtsezko eta oinarritzko ezaugarriak emateko, egia da bestetik frantses eraginak zerbait kutsu ematen dietela Frantziapeko hiru eskualderi. Azkenik ez du deus ere ikusteko linguistikarekin erratea euskalki bat bata baino hobea dela, eta euskaldunagoa (hori diotenak berenak eredutzat emanik eta besteena trufagarri). Egia da “euskara batua” eredu den bezala, eta eredu delako urrunenik gaudenak harengandik Bizkaian eta Zuberoan, arriskua dugula euskalki horien ahultzea ikustea; badakigu garai batean zuberotarrei sartu zitzaizela buruan zuberera ezin idatzia zela, egiazko euskara “manex”a zela eta batzuegan eragin txarra izan zuela, orainarte hinkili-hankala iraun du zubererak.

1. Herritarrek beren euskalkiari “xiberotarra” edo “(h)üskara” diote, nik zuberera hitza erabili behar dut, baina zuberera gure herritarrentzat Sumer-eko hizkuntza da ez haien euskalkia.

## Bibliografia

- ALLIERES, J., 1970, "Petit atlas linguistique basque et français Bourciez". *FLV* XVIII, 5-45.
- ARCHU, J.-B., 1848, *Lafontaine-ren aleghia berheziak neurt-hitzez frantzesetik Uscarara itzuliak*, La Reol [Euskal Klasikoak, Gazteiz, 1989].
- BELA, J. de, 1660-1675?, *Tablettes*, argitaragabeko eskuidazkia. 4500 orr. Erran zaharrak eta beste.
- BELA, J. F., *Historie des Basques*, eskuidazkia; B.N. Parisekoan kat. N.A.F. 2055 eta 2069' (hiztegia ikus. Tx. Peillen).
- BELA-PEYRE, A., 1696, *Jesu Christ gure Ginko jaunaren eçagutcia salbatu içateco*, Orthez.
- CASENAVE HARIGILE, J., 1988, *Hiztegia. Frantzes-zuberoera*, Hitzak, Ozaze-Atharratze.
- EGIATEGI, Jüsef, 1785, *Filósofo huskaldunaren ekheia* [PEILLEN, Tx. (prest.), 1983].
- HARITSCHELHAR, J., 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etxahun*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- IRIGOYEN, A., 1985, "Haur ola zirola", in *De Re Philologica Linguae Vasconicae*, Bilbao.
- 1990, "Etimología del nombre vasco del vascuence y las vocales nasales descritas por Garibay", *FLV* 56.
- JIMENO JURÍO, J. M., 1989-1990, *Toponimia del valle de Oltza* 3.
- JIMENO JURÍO, J. M., 1989-1990, *Toponimia del valle de Iza* 6.
- LAFITTE, P., 1967, "L'art poétique d'Oihenart", *Gure Herria*, Baiona.
- LAFON, R., 1935, "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins", *Mélanges P. Laumonier*, Paris, 635-643.
- 1958, "Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute Solue)", *Homenaje a A. Martinet*, Canarias, 77-106.
- 1928, "La voyelle ü en Basque", *Société de Linguistique*, Paris.
- 1965, *Contact de langues et apparition d'une nouvelle voyelle ü en basque*, Klincksieck, Paris.
- 1948, "Remarques sur l'aspiration en basque", in *Mélanges H. Gavel*, Toulouse.
- LARRASQUET, J., 1928, *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes en basque souletin-nord-oriental*, Paris.
- 1939, *de la Basse-Soule nord-orientale (verbe et lexique)*, Klincksieck, Paris.
- LOPEZ DE GUERENU, G., 1989, *Toponimia alavesa y despoblados y mortuorios*, *Onomasticon Vasconiae* 5, Euskaltzaindia, Bilbao.
- MITXELENA, K., 1970, *Fonética histórica vasca*, ASJU, Donostia.
- 1964, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid.
- OIHENART, A., 1639, *Notitia Utriusque Vasconiae tum Ibericae, tum Aquitaniae*, Paris.
- ORPUSTAN, J.-B., "Les maisons médiévales du Pays Basque", *Bulletin du Musée Basque*, Baiona.
- 1990, "La cour de Licharre en 1337-1338", *Bulletin du Musée Basque* 4e trim.
- ROHLFS, G., 1970, *Le Gascon, Etudes de philologie pyrénéenne*, Tübingen-Pau [lehen edizioa 1935].
- ROTAETXE, K., 1978, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, L. Zugaza, Durango.
- SANCHEZ CARRIÓN, J. M., 1974, "Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas", *ASJU* VII, 3-79.
- SAROIHANDY, J., 1927, *La Pastorale de Roland*, BLSAE, Baiona.
- URKIZU, P., 1984, *Astolasterrak*, Eusko Jaurlaritzza, Donostia.
- , *Astolasterrak, hurbiltze saio bat*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- XIBEROAKO SINDIKATA (Batzordea) (Commission syndicale du Pays de Soule), 1979, *Usotegien izen zerrenda*, Maule.
- ZUAZO, K., 1989, "Zubereraren sailkapenerako". *ASJU* XXIII, Donostia.